



2024  
09  
11-13

## Geopolitika eta eremuko ikerlanean I. Nazioarteko Kongresua

Iparrorratzak iparraldea  
adierazten ez duenean



[geink.eus](http://geink.eus)  
Web

[info@geink.eus](mailto:info@geink.eus)  
Kontaktua

@Geink  
X (Twitter)

# BEHIN-BEHINEKO PROGRAMA GEINK 2024

## Geopolitika Eremuko Ikerlanen Nazioarteko Lehen Kongresua: “Imanorratzak Iparraldea Adierazten ez duenean”.

Bilbon, irailaren 11tik 13ra

Data: 2024ko irailaren 11, 12 eta 13a

Lekua: Euskal Herriko Unibertsitateko (UPV/EHU) Banco de España eraikinean, Banco de España kaleko 2. zenbakian, [Bilboko Alde Zaharrean](#).

Antolatzaileak: EHUko Politika eta Administrazio Zientzia Saila, Parte Hartuz ikerketa taldea eta Geopolitikaz.

Web-orria: <https://geink.eus/>

Email: [info@geink.eus](mailto:info@geink.eus)

X: <https://twitter.com/Geink>

### AURKEZPENA

Geopolitika eta Eremuko Ikerlanen Nazioarteko Kongresua Nazioarteko Politika, Geopolitika eta Eremuko Ikerlanen ikerketari eta analisari buruzko truke akademiko eta sozialerako gune bat da. Lehen edizio honetan, hegemonia globalaren aldeko borrokan gertatzen ari diren aldaketetan jarriko du arreta. Mendebaldearen gainbeheraren aurrean Hegoalde Global heterogeneoaren indartzea nazioartean, arlo ekonomikoan eta politikoan gero eta emantzipatuagoa agertuz. Hortik dator “Imanorratzak iparraldea adierazten ez duenean” izenburua. Errealitate honi buruz eztabaidatzeko hamar lan-talde osatu dira 74 ponentziarekin, lau hitzaldi eta hiru mahai-inguru egongo dira.

### LAN-TALDEAK

LT 1 Teoriak eta Ideologiak: 13 ponentzia. Koordinatzaileak Irene Zugasti & Jon Kortazar, 4 mahai.

LT 2: Aldaketak eta Borrokak: 11 ponentzia. Koordinatzaileak: Asier Blas & Borja Macías, 3 mahai.

LT 3 Bake Ikerketak: 4 ponentzia. Koordinatzailea: Itziar Mujika, mahai 1

LT 4 Ikerketa Estrategikoak: 9 ponentzia. Iván González eta Nahia Sanzo, 3 mahai

LT 5 Komunikazioa: 4 ponentzia. Koordinatzaileak: Jon García eta Pablo García, mahai 1

LT 8 Mendebaldeko Asia: 9 ponentzia. Koordinatzaileak: Mar Gijón eta Gabirel Ezkurdia, 3 mahai

LT 9 Asia-Pazifikoa: 6 ponentzia. Koordinatzailea: Borja Macías, osotara 2 mahai

LT 10 Espazio Postsobietarra): 5 ponentzia. Koordinatzailea: Asier Blas, mahai 1

LT 11 Europa: 5 ponentzia. Koordinatzailea: José Castillo, mahai 1

LT 12 Latinoamerika: 8 ponentzia. Koordinatzaileak: Iratxe Perea eta Itsasne Allende, 3 mahai

*6. eta 7. Lan-taldeak ez dira osatu, lan-talde hauek ez baitituzte gutxieneko hiru ponentzia-proposamen jaso.*

## 2024KO IRAILAREN 11, Asteazkena

09:30 – 10:45 LAN-TALDEAK

*LT2: Aldaketak eta borrokak munduko ordena politiko eta ekonomikoan (4 ponentzia).*

*LT5: Komunikazioa eta hedapen geopolitikoak (4 ponentzia).*

*LT8: Mendebaldeko Asia eta Ipar Afrika (3 ponentzia).*

10:45 – 11:15 atsedenaldia kafea hartzeko.

**11.15-12:30: Osoko bilkurako Mahai-ingurua** (euskaraz): **“Hegoaldearen eta polo anitzetako munduaren indartzea”**. **Borja Macías Urbano** (EHUko irakaslea) eta **Asier Blas Mendoza** (EHUko irakaslea)

12:45 – 14:00 LAN-TALDEAK

*LT2: Aldaketak eta borrokak munduko ordena politiko eta ekonomikoan (4 ponentzia).*

*LT3: Bakearen eta Gatazken Konponbiderako Ikerketak (4 ponentzia).*

*LT8: Mendebaldeko Asia eta Ipar Afrika (3 ponentzia).*

14:00 – 15:15 ATSEDENALDIA BAZKALTZEKO

**15:15-16:15: Osoko Bilkurako Mahai-ingurua** (euskaraz): **“Nazioarteko politikaren maskulinizazioa eta feminismoak Nazioarteko Harremanetan”**. **Iratxe Perea Ozerin** (EHUko irakaslea) eta **Itziar Mujika Chao** (EHUko irakaslea).

16:30 – 17:45 LAN-TALDEAK

*LT2: Aldaketak eta borrokak munduko ordena politiko eta ekonomikoan (3 ponentzia).*

*LT4: Defentsa, Inteligentzia eta Ikerketa Estrategikoak (3 ponentzia).*

*LT8: Mendebaldeko Asia eta Ipar-Afrika (3 ponentzia).*

**18:00 – 19:30 Osoko Bilkurako Hitzaldia: “Gobierno - industria militar- guerra. Una relación parasitaria”**. **Tica Font** (Centre d’Estudis per la Pau J.M. Delàs).

## 2024KO IRAILAREN 12A, Osteguna

09:30 – 10:45 LAN-TALDEAK

*LT1: Teoriak eta Ideologiak Nazioarteko Politikan (3 ponentzia).*

*LT4: Defentsa, Inteligentzia eta Ikerketa Estrategikoak (3 ponentzia).*

*LT12: Latinoamerika (4 ponentzia).*

10:45 – 11:15 Atsedenaldia kafea hartzeko

**11:15 – 12:30: Osoko Bilkurako Hitzaldia: “Lo internacional es personal: la perspectiva de género en los conflictos armados”**. **Irene Zugasti Hervas** (politologoa, kazetaria, Canal Red).

12:45 – 14:00 LAN-TALDEAK

*LT1: Teoriak eta Ideologiak Nazioarteko Politikan (3 ponentzia).*

*LT9: Mendebaldeko Asia. (3 ponentzia).*

*LT12: Latinoamerika (4 ponentzia).*

14:00 – 15:15 ATSEDENALDIA BAZKALTZEKO

**15:15 – 16:30 Osoko Bilkurako Mahai-ingurua: “Dinámicas de la guerra ruso-ucraniana: el plano estratégico, geopolítico y militar”.** Nahia Sanzo Ruiz de Azua (soziologoa, kazetaria eta nazioarteko politikan analista) eta Aitor Saiz Lasheras (historialaria eta metodologoa, web-orria “Operativamente: fuentes primarias y documentos para comprender la guerra”).

16:45 – 17:45 LAN-TALDEAK

LT1: Teoriak eta Ideologiak Nazioarteko Politikan (3 ponentzia).

LT4: Defentsa, Inteligentzia eta Ikerketa Estrategikoak (3 ponentzia).

LT9: Mendebaldeko Asia (3 ponentzia).

**18:00 – 19:30 Osoko Bilkurako Hitzaldia: “La Geopolítica del Sahel: Retos y Estrategias en una Región en Transformación”.** Sani Ladan (Analista eta nazioarteko politikan ikerlaria, Casa África).

### 2024KO IRAILAREN 13A, Ostirala

09:30 – 11:15 LAN-TALDEAK

LT1: Teoriak eta Ideologiak Nazioarteko Politikan (3 ponentzia).

LT10: Espazio Postsobietarra (5 ponentzia).

LT11: Europa (5 ponentzia).

11:15 – 11.45 Atsedenaldea kafea hartzeko

11:45 – 12:00 Osoko bilkura GEUSK proiektua aurkezteko.

**12:00 – 13:30 Osoko Bilkurako Hitzaldia: “Imperialismo recargado: guerra judicial y manufacturación de consenso como estrategias de poder blando”.** Silvina Romano (Argentinako Ikerketa Zientifiko eta Teknikoen Kontseilu Nazionala eta CELAG).

13:30 – 14:00 Osoko-Bilkura: kongresuaren itxiera

15:00 BAZKARIA/EKITALDI SOZIALA

Izena emateko informazio guztia web-orri honetan dago eskuragarri:

<https://geink.eus/registration/izen-ematea/>

**Osoko Bilkuretako hitzaldiak emango dituzten pertsonen Curriculum Vitaea laborri azalduta:**

**Tica Font** irakasle gisa aritu izan da hezkuntza ez-formalean, horretaz gain Urrutiko Hezkuntzarako Unibertsitate Nazionalean (UNED) tutore lanetan ere ibili izan da. Baita ere, Bartzelonako Diputazioan ingurumen teknikari gisa jardun izan da. Centre d’Estudis per la Pau J.M. Delàs elkartearen sortzaileetako bat da. Aditua da defentsaren ekonomian, armen merkataritzan, defentsa aurrekontuetan, armen industrian, arma berrietan eta segurtasun auzietan.

**Irene Zugasti** politologoa eta kazetaria da eta master bat du Nazioarteko Harremanetan. Bere ibilbide profesionala Espainiako zein Europako Batasuneko administrazio publikoan garatu du, genero berdintasuna lortzeko politika publikoen arloan. Ikerlari moduan, estatu zein nazioarte mailako hainbat erakunderentzat lan egiten du segurtasunaren eta nazioarteko harremanen zein emakumeen aurkako indarkeriaren eremuan.

2019-2023 legegintzaldian Berdintasun Ministerioaren taldeko kide izan zen eta egun Genero Politiken teknikari gisa dihardu Madrilgo Udaleko kultura kudeaketaren arloan. Horretaz gain, kazetaria da Canal Red hedabidean.

**Sani Ladan** Nazioarteko Harremanetan graduatua eta Gizarte Hezitzailea da. Hezitzaile interkulturala izateaz gain, aditua da kanpo politika, segurtasuna eta nazioarteko migrazio auzietan. Nazioarteko analista gisara dihardu eta Ekialde Hurbila, zein erdialdeko eta mendebaldeko Afrikako gaien ikerketan espezializatu da. Gainera, Sani panafrikanista eta arrazismoaren aurkako eta giza eskubideen defentsaren aldeko ekintzailea da. “La luna está en Duala” (2023) liburuaren egilea da.

**Silvina Romano** Buenos Aireseko Unibertsitateko Latinoamerika eta Karibeko Ikasketa Institutuaren (IEALC-UBA) barruan kokatzen den Ikerketa Tekniko eta Zientifikoen Kontseilu nazionalako (CONICET) ikerlaria da. Mexikoko Unibertsitate Nazional Autonomoko (UNAM) Latinoamerika eta Kariberi buruzko Ikerketa-Zentroan eta Kultura eta Gizarteari buruzko Ikerketa-zentroan (CONICET) doktoratu-ostea egin du. Kordobako Unibertsitate Nazionalako (UNC) Ikerketa Aurreratuen Zentroaren bidez Politika Zientzietan doktorea da. Historian eta Gizarte Komunikazioan lizentziaduna da UNCREn bidez. Hamarnaka argitalpenen egilea da, bere ikerketa-ildoek Lawfarea, Estatu Batuen eta Latinoamerikaren arteko harremanak Gerra Hotzaren testuinguruan eta gaur egun, garapenerako laguntzari kritika; integrazioa, Latinoamerikaren azpigarapena eta dependentzia edota Amerikako Estatu Batuetako demokrazia eta segurtasuna bezalako gaiak jorratzen dituzte. CELAG elkarteako Kontseilu Exekutiboko kidea ere bada eta Amerikako statu Batuetako eta Latinoamerikako azterketa-unitatea koordinatzen du.

## IZEN-EMATEA

Kongresuan izen-emateko ordainketa KUTXABANK bankuko kontu-zenbaki honetara bideratu behar da: ES19-2095-0292-9232-3908-8081. Kontu hau Politika eta Administrazio Zientzien Sailarena da (helbidea: Sarriena Auzoa, 48940, Leioa, Bizkaia). EHUrekin kontratu-harremanen bat duten pertsonak berriz ez dute prozedura hau jarraitu beharrik izango, betiere matrikula EHUren kontura ordaindu behar badute (ikerketa-proiektuak, saila etab.); kasu horretan barne-fakturazioa egingo da ([info@geink.eus](mailto:info@geink.eus) helbide elektronikoari egin eskaera email bidez).

Ordainagiria izena emateko formulariora igo beharko da. Zenbatekoa aldatu egiten da modalitatearen arabera. Izena emateko prezioak 2024-07-16tik 2024-09-10 arte jarraian:

**Entzule presentzialaren izen-emate arrunta: 40€**

Hizlari presentzialaren izen-emate arrunta: 50€

Aurkezpena online eran egingo duten hizlarien izen-ematea (ez da entzulerik onartuko): 25€

Graduko ikasleen edo pertsona langabetuen izen-ematea (hizlari edo entzuleak): 30€ (tarifa murriztuaren egiaztatzea izena emateko formulariora igo beharko da).

Izena emateko formularioa: <https://geink.eus/registration/izen-ematea/>

**EKITALDI SOZIALA:** kongresuko lana irailaren 13an 14:00etan amaituko da. Ondoren, 15:00etan, ekitaldi soziala/bazkaria izango dugu; pertsonako 25/30€ inguru balioko du. Izena emateko inprimakian parte hartzeko interesa adierazi behar da; baina ez da ordainketarik egingo oraindik. Uztaila-abuztu aldera, ekitaldi sozialari eta ordaintzeko moduei buruzko informazio gehiago emango da.

# 1st International Conference on Geopolitics and Area Studies

11-13  
09  
2024

**Speakers: "When the compass no longer points North"**



**TICA FONT**  
Centre per la Pau Delàs



**SANI LADAN**  
Africa House



**SILVINA ROMANO**  
CONICET and CELAG



**IRENE ZUGASTI**  
Politologist and Journalist

[geink.eus](http://geink.eus)

[info@geink.eus](mailto:info@geink.eus)

[@Geink](https://www.instagram.com/Geink)